[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
602. zkia.
XV. urtea
2007ko otsailaren 16a




## Uxue Alberdi, idazlea

# «Ilusiotik ateratzen dut denbora»

[ LUZEZABAL ] UDAL AURREKONTUAK • [ KULTURA ] JUANA ARRIETA

# ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

## **Ordenagailu bidez** *teoria ikasteko gela berria* !





**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era

**15:00**etatik-**20:30**era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behea**
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



# ZOZOAK BELEARI...



**ALAIN ULAZIA**

Real Soziedadeko futbolari izateari utzi eta idazle bihurtu zen Irigoien jaunaren pasarte bat egokitu nahi nuke bere letra txikiz idatzitako poema liburu ederretik, ez dakit irakurria duzun Alaitz:

"Zenon Elbarrene obra ikuskatzaile jubilatu abertzale eskuindarrak zeinen handia zuen bizipoza, ai, batez ere egunkariko eskelak irakurtzen zituenean! Zenbat eta eskela gehiago irakurri, orduan eta zoriontsuago sentitzen baitzen, Jainkoaren eskuak heriotzaren atzaparretatik salbatu balu bezala. Ohean berrogei urte zeramatzala egokitu zitzaion bere lehen adiskidearen eskela ikustea eta, pena apur bat sentitu bazuen ere, berehala estali zuen poz neurrigabe batek, bere buruari esaten ziola: "Parkasio atzean utzi diat behintzat". Gero, beste lagunak erori ziren, Ruben, Benito eta Bruno, eta bera bizirik horien eskelak ikusiz."

Zenonen paraderoa ikusita, Juan Mari Irigoienek bezalaxe, familiari eta lagunei esana diet hurrengo hau testamentu gisa:

"Beharrezkoa jotzen baduzue, idatz ezazue iritzi artikuluren bat; auzoan izugarrikeriaren bat gertatzen bada, idatz iezaiozue zuzendariari kartaren bat, idatz iezaiozue, bai, eta eros ezazue aleren bat orduantxe, nahi duzuena egizue. Baina nire eskelarik ez Diario Vascon, burutik pasatu ere ez".

Eta mehatxatu egin ditut:

"Bestela piztu egingo naiz".

Agindua beteko dute, seguru.

**«Nire eskelarik ez Diario Vascon, burutik pasatu ere ez»**

ALAIN

**«Nire ordua iristean bizitzak aurrera jarraituko du ni gabe»**

ALAITZ

**ALAITZ VIVES**

Ai, besterik balego, beste bizitzarik balego, Alain!

Betebeharreko aginduak lagata ere, bat, hiru, bost eskutiz laga nituen idatzirik, bost, ezker eskuko atzapar bakoitzeko eskutitz bana. Baina, ezin erantzun ezin usaindu, ezin garrasi egin... ezin ezer egin.

Edo bai, ihesi. Heriotzari ihesi, norbera harrapatu baino lehen, ihesbidea egin. Bizkor-bizkor, isil-isilik. Bakar-bakarrik. Besterik ete dan jakin gabe.

Bost eskutiz utzi nituen idatzita, zentzumen bakoitzeko bana. Ikusi, entzun, usaindu, dastatu, ikutu... ditudanak zerrendan jarri ditut, bakoitza koloretako orri batian idatzita. Horixa, gorrixa, berdia, urdina, eta naranja koloreko orri ederretan idatzi ditut ikusi, entzun, usaindu, dastatu eta ikututakoak. Orri bakoitzaren alde biak erabili ditut, beteta daude, tinta beltzak ozta-ozta uzten du orriaren kolorea ikusgai. Halaxe osatu dut nere koloreetako itsasontzi flota.

Itsasontzi? Ez dira itsasorako barren! Arrazoizko arrazoi madarikatua, azken borondatea ere ezin lasai bete!

Han dixez, nere itsasontziok, bata bestearen atzetik marrazki bizidunetako paitxa txikixak amaren atzetik juaten diazen bezelaxe... han dixez, bizi-bizirik.

Nire ordua iristen den egunian, gauza bakar batek minduko nau, bizitzak aurrera jarraituko duela. Ni gabe.

> Heriotza izugarria da baina,
> bizi izan gabe hil beharraren ideia jasanezina da

Erich Fromm

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Hamalaugarrena!

Ez da 15. urteurrena izan. Konturatu gabe, urte bat gehitu diogu lehendik geneukan urte-sortari. Beraz, aurtengoa hamalaugarrena izan da. Eta aurten otsailaren 4a domekarekin batera iritsi dela aprobetxatuta, 25 lagun elkartu ginen herriko plazan goizeko bederatzi eta erdietan. Santa Ageda bezpera zen eta, urteroko legean, baserrietako bidea hartu eta aterik ate kantuan eta eskean jarduteko unea zen. Ohitura zaharrari hautsa kentzeko ordua.

Iaz pasa genuen hotzaren ordainetan edo, aurten aparteko eguraldia izan genuen. Mendiak elurtuta ikusi arren, eguzkia guri begira egon zen egun osoan; estimatu genion eskainitako berotasuna. Baina ez zen eguzkia izan berotasuna eman zigun bakarra. Urtero moduan, baserritarren berotasuna ere sentitu genuen gure barrenean. Eta baserri atarietan, berriz, irribarreak, malkoak, limosna, jan-edanak eta Santa Agedaren omenez kantatu genituen koplak elkartu ziren.

Hamabi ordu eskas baserriz baserri eskean pasa ondoren, gaueko bederatziak eta laurdenetan iritsi ginen San Migeleko soziedadera. Nekatuta baina pozik. Han zeuden Agustin Irusta, Balentin Egia eta Esther Mugertza gure zain; mahaia jantzita eta jatekoa bero-bero. Kalamua elkartean ere berotasunak inguratzen gaitu.

Asko jaso dugu aurten ere. Horregatik irtengo gara datorren urtean berriz ere. Otsailaren 4an; Santa Ageda bezperan.

**ELGOIBARKO IZARRAKO SANTA AGEDA TALDEA**

## Bost galdera publiko MTIri

1) Zer gertatu da benetan Gantxipixara bidean dauden baserrien ur hornikuntza planarekin?

2) Ustezko gaizkiulertu bat tarteko, Gazte Asanbladakoei "kutsu ideologikoa duten margoak" ustezko gaztetxeko paretetatik kentzeko agindu diezue. Kutsu hori zuten margoak hiru ziren: "euskal presoak, euskal herrira" jartzen zuen bat, Abiadura Handiko Trenari buruz Berria egunkarian agertutako komiki bat, eta nazien sinbolo bat zaborretara botatzen ari zen gizakume batena.

a) Definitu "kutsu ideologikoa duen margoa".

b) Esan definizio hori zein epaitegi, akademia, entziklopedia edo jakintza iturri serioren araberakoa den.

c) Arrazoitu hiru margo horiek zergatik sartzen diren definizio horren baitan, eta kentzeko agindu ez diezuenak zergatik ez.

3) Mendaroko Talde Independentea deitzen diozue zeuen buruari. Zuen ustezko independentzia hori ez al da oso zalantzakoa Gaztetxekoa bezalako neurriekin? Mendaroko Auzolanian Herri Plataformari zilegitasun demokratikoz zegokion zinegotzia eta dirua kendu zeniotenean erakutsi zenuten dependentzia mota bera ez al da hori?

4) Barajasko atentatua kondenatzeko mugitu zineten, mugituko al zarete adibidez De Juanaren auzia kondenatzeko?

5) Gu aurkeztuko gara, zuek aurkeztuko al zarete maiatzeko hurrengo udal hauteskundeetara?

Orain Mendaro, orain ezker abertzalea.

**MENDAROKO EZKER ABERTZALEA.**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]

barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Enrique Bert KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.570 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## KEXAK

• **Lurrazpiko zabor edukiontzioen ahoa txikiegia da:** "Gure etxean oso kontzientziatuta gaude birziklapenarekin eta zabor guztia banatzen dugu poltsa desberdinetan. Gero zaborra botatzera joaten gara, eta poltsak ez dira zabor edukiontzietan kabitzen. Denbora mordoa pasatzen dugu zaborra poltsetatik atera eta edukiontzian sartzen. Gainera, arriskutsua da, izan ere, kristalekin edo kontserba poteekin ebakiren bat egitea oso erraza da. Tabernariei ere gauza bera gertatzen zaie. Irtenbideren bat bilatu behar dela uste dut".

• **Urasandi auzoan kotxe mordoa egoten da espaloi gainean aprkatuta:** "PSOEren egoitza eta Uyarra bodega zegoen artean kotxe mordoa egoten da espaloi gainean aparkatuta. Txikiteoan ibiltzen den jendeak eta ingurune horretan lokala duten gazteak izaten dira kotxea espaloi gainean uzten dutenak. Gainontzekoak sekulakoak egin behar izaten ditugu ingurune horretan, izan ere, bidea nahiko estua da eta espaloi gainean kotxeak baldin badaude, ez dago pasatzeko lekurik. Ez dut ulertzen, gorago edo beherago egoten da aparkatzeko lekua, baina jendea erosoegia da eta bi pausu eman aurretik, nahiago dute kotxea gaizki aparkatu. Udaltzainek gehiago bisitatu beharko lukete gure auzoa".



• **IMH eta Basarte auzoaren artean ez dago zebrabiderik:** "Basarte eta IMH artean jende askok gurutzatzen du bidea eta oso arriskutsua da. Aldapa handia dago eta kotxeak oso bizkor ibiltzen dira. Badirudi gure auzoan ez dagoela legerik eta jendeak nahi duen moduan ibiltzeko aukera daukala uste du. Ezer gertatu aurretik neurriak hartzeko eskatu nahi dugu".



• **Santa Ana kalean ez dago telefono kabinarik** "Gaur egun jende gehienak sakeleko telefonoa dauka, eta telefono kabinak gero eta gutxiago erabiltzen dira. Hala ere, oraindik badago telefono kabinak erabiltzen dituen jendea. Santa Ana kalean lehen bageneukan telefono kabina bat baina kendu egin ziguten eta ez dute berriro ipini. Gehiegi eskatzea ez bada, lehen zeuden kabinak mesedez, berriro bere tokian jartzeko eskatuko nuke. Mila esker".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Gipuzkoako Foru Aldundia
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT



URRUZUNOREN *luma*

## *Zuzenbideak*

Marra paralelo eta perspektiben gainean berba egin nuen aurreko batean. Bi zuzen paralelo ez direla sekula elkartzen diote batzuek. Beste batzuek, aldiz, mi zuzenok infinituan elkartzen direla diote. Norberaren gustuen arabera dago, infinituan sinistu edo ez, akaso.

Nik sinisten dut infinituan, mugagabean. Zuzen paraleloetan sinistea gehiago kostatzen zait, ordea. Bi zuzen paralelok eratzen dute zuzenbidea. Zuzenbidean sinistea gehiago kostatzen zait. Esfera perfekturik ez dagoen bezala ez baitago zuzen perfekturik, ezta hauek eratzen duten zuzenbide zuzenik ere. Gainera, zuzenbidearen okerrak aireratuz gero gaizto bihurtzen gara, gizakia zuzen perfektuekin amets egiteko sortu den espeziea baita.

Eta zuzen paraleloak infinituan elkartzen dira, bai elkartzen dira, begiak behar diren lekura bideratzea da gakoa. Soa behar den lekura bideratuz gero konturatuko zara zuzenbidea okerra dela, bi iritzi artikuluren firmak bezain okerra. Zuzenbide estatua? Ez iezaguzue adarrik jo, ez infinituan sinisten dugunoi, bederen.

***Antton Alberdi***

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### LURDES ZIORRAGA

IPINTZA MARGOAK DENDAKOA

• **Zein koloretakoa da zure bizitza une honetan?**
Ez argia eta ez iluna. Momentu hobeak izan ditut, baina okerragoak ere bai.

• **Zerk gorritzen zaitu?**
Gauza askok, oso lotsatia naiz; BARRENen ateratzeak ere ematen dit lotsa apur bat, ez pentsa!

• **Zein gaitan zaude oraindik berde-berde?**
Informatika eta internet munduan asko daukat ikasteko.

• **Gustukua al duzu prentsa arrosa?**
Ez, oso gutxi jarraitzen dut eta gainera ez ditut pertsonaia horiek ezagutzen.

• **Zure bizitzako une beltz bat?**
Gure aitaren heriotza. Oso momentu txarra izan zen. Ahaztea nahiko nuke, baina ezin da.

• **Ile horiak ala beltzaranak gustatzen zaizkizu gehiago?**
Beltzaranak.

• **Zein koloretako ilea ez zenuke sekula jarriko?**
Ez naiz oso ausarta, baina edozein koloretakoa ipiniko nuke, momentuaren araberakoa izaten da hori.

• **Etxeak margotzeko zein da modako kolorea?**
Zuri apurtua eta kolore biziak daude modan. Betiko zuri-zuria ez da eramaten, zuri zikinagoa erabiltzen da orain.


Elgoibarko karnabalak erretratuetan bilduta



Astelehenean eta asteazkenean bistaratuko ditugu.



**www.elgoiBARREN.net**

**Elgoibarko berri izateko beste modu bat.**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

## [AKORDATZEN NAIZ]



### ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa

### «Elizia»

Ni elizaz ezkondu nitzan, orduan ez zauan beste erremdixorik, baiña gurko gaztiak ez badabe elizaz ezkondu nahi, ni horrekin konforme nago. Eliziak gauza batzuk aldatu biharra daukala uste dot. Nik badakat sinismena.

Txikittako edukaziuak asko eitten dau, eta guri kristautasuna erakutsi ziguen. Dotriñia buruz ikasi bihar zan. Sinismena txikittatik sartuta dakat: mezetara juten naiz eta sinisten dot. Baiña aldaketa guztixekin konforme nago. Homosexualak ezkontzian gaiñian zer esango dot, ba? Gure denporan hori oso grabia zan. Gaur egun hor daude, beste gauza asko bezela.

Beste mundu bat da, bakoitzak bizi bihar dau. Ez dot uste homosexuala izatiagaittik pertsona txarragua danik.



Tokau izan jataz inguruan, eta bestiak bezain pertsona onak dira. Ni ez nago hórren kontra ere.

Gure denporan meza asko egoten zan oingo aldian, eta basarriko puntatik danak oiñez bajatzen ziran, eta gero berriz ixo bihar zeben. Hala ere, iñor ez zan mezia entzun gabe geratzen.

## [GURE BERBAK]

### *Moduzko esaldixak: -eLARIK*

*-eLARIK* menderagailua hartuko dogu gaur hizpide. Jakin bihar dogu ez dala Elgoibarkua bertakua, beraz, erabiltzekotan euskara batuan erabili biharko gendukeela. Behin hori esanda, balio hauekin erabiliko neuke nik:

- *Denbora (-eNEAN-en pareko): Gazte nintzelarik, mendia gustatzen zitzaidan.*
- *Modua (-eLA-ren pareko): Futbolean ari nintzelarik bihurrittu nuen orkatila.*
- *Kontzesioa (-eN ARREN-en pareko): Gaixorik nagoelarik ere, irtengo naiz kalera.*

Ondorengo eran, berriz, ez neuke erabiliko:

** Haize bortitzek sua eragin zuen Zalduondon, udaletxea erre zelarik.*

Kasu honetan, ondoriozkotasuna da *-eLARIK*-en balioa, eta euskeraz ez da iñoiz balio hori adierazteko erabili. Horren ordez, hona egokiago bat:

*Haize bortitzek sua eragin zuten, eta, (horren ondorioz) udaletxea erre zen*

*Jesus Mari Makazaga*



## II. URTEURRENA

2005eko otsailaren 10ean hil zen

***Delia Ramos Rabanos***

***"Ez zaitugu ahaztuko"***

Zure lagunak





## ESKERTZA

2007ko otsailaren 7an hil zen

***Juana Iriondo Bergaretxe***ren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## UDAL AURREKONTUAK 2007

# 17.803.867,23 EUROKO AURREKONTUA

*EAJ, EA eta PSE-EE alderdien aldeko botoekin eta PP eta Ezker Batuaren abstentzioarekin onartu dira 2007rako udal aurrekontuak. Guztira 17.803.867,23 euroko aurrekontua izango du Udalak, iaz baino 1.341.561,23 euro gehiago, hain zuzen ere. Azpimarratzekoa da inbertsioen atala %25,48an hazi dela iaztik. Bestalde, aipatu beharra dago 2007ko sarrera arruntak (11.061.220 euro) gastu arruntak baino gehiago direla (10.254.345 euro). Gaurkoan, aurrekontuen laburpen bat jaso dugu orrialde hauetan. Alderdi politikoen iritziak ere jaso ditugu. Batetik, Marivi Agirregomezkorta alkateak aurrekontuen azalpena eman digu, eta Iñigo Arkauz (PP) eta Javi Aznalek (IU-EB) euren alderdien abstentzioaren arrazoiak azaldu dizkigute.*



Aurrekontua 3 zatitan banatzen da:

- **Udala:** 16.216.029, 91 euro
- **San Lazaro Egoitza:** 1.181.961 euro
- **Udal Kirol Patronatua:** 895.793,32 euro

| **SARRERAK** (eurotan) | **2006** | **2007** |
|---|---|---|
| **Sarrera arruntak** | | |
| Zuzeneko zergak | 2.076.950 | 2.417.000 |
| Zeharkako zergak | 500.000 | 700.000 |
| Tasak eta bestelako sarrerak | 1.143.300 | 1.399.300 |
| Transferentzia arruntak | 6.261.760 | 6.476.520 |
| Ondare sarrerak | 58.100 | 68.400 |
| Guztira | 10.040.110 | 11.061.220 |
| **Kapitalaren sarrerak** | | |
| Benetako sarreren inorenganatzea | 943.853,73 | 1.821.000 |
| Kapitalaren transferentzia | 850.000 | 710.153,88 |
| Aktibo finantzarioak | 20.000 | 20.000 |
| Finantza pasiboak | 2.490.124,79 | 2.603.656,03 |
| **Sarrerak guztira** | **14.344.089,52** | **16.216.029,91** |

| **GASTUAK** (eurotan) | **2007** |
|---|---|
| Pertsonalaren ordainak | 3.182.638, 87 |
| Ondasun arrunt eta zerbitzuokak | 4.888.859, 03 |
| Interesak | 119.946,09 |
| Transferentzia arruntak | 2.067.762,52 |
| Inbertsio errealak | 4.864.723,45 |
| Kapital transferentziak | 651.186,38 |
| Finantza aktiboak | 20.000 |
| Finantza pasiboen aldaketa | 425.774,57 |
| **Guztira** | **16.216.029,91** |

| KONPARAKETA | ■ 2006 | ■ 2007 |
|---|---|---|
| Barne Saila | 1.991.684,1 | 2.536.671,26 |
| Kultura | 1.999.390,2 | 2.303.717,2 |
| Euskara | 400.225,63 | 427.618,12 |
| Ongizate Saila | 2.539.440,99 | 2.643.987,86 |
| Hirigintza | 6.090.878,54 | 6.984.873,01 |
| Hazienda | 1.040.577,36 | 1.014.522,55 |
| Gaztedia | 282.892,29 | 304.639,92 |




## BARNE SAILA

| | |
|---|---|
| Gobernu organoak | 530.729,47 |
| Administrazio orokorra | 908.258,61 |
| Hiriko segurtasuna | 1.097.683,18 |
| **Guztira** | **2.536.671,26 euro** |



% 16

## KULTURA

| | |
|---|---|
| Hezkuntza | 431.617,48 |
| Kultura | 1.747.712,76 |
| Liburutegia | 124.386,95 |
| **Guztira** | **2.303.717,2 euro** |



% 14



## MARIVI AGIRREGOMEZKORTA Alkatea

# «Sigma auzoko irteera konpondu eta errotonda egitea izango da aurtengo lanik garrantzitsuena»

Marivi Agirregomezkorta alkatearekin hitz egin dugu 2007ko aurrekontuen gainean, eta oso gustura daudela kontatu digu: "Iazkoarekin alderatuta dezente hasi da aurtengo aurrekontua. Urruzunon eta Ubitarten etxeak eraikiko dira eta lursail horien %10a udaletxearentzat da. Gainera Foru Aldunditik ere diru gehiago jaso dugu. Pozik gaude". Inbertsioen atalean gorakada handia egon da aurten eta guztira, aurrekontuaren %30a erabiliko da inbertsioetarako. Alkateak Sigmako proiektua azpimarratu du: "Gure lanik garrantzitsuena Sigma auzoko irteera hobetu eta errotonda egitea da. Bestalde, Altzola auzoa ere hor daukagu, baina zailtasun handiak ditugu Altzola hobetzeko, errepide nazionala erdi-erditik pasatzen daeta". Bestalde, Plaza Txikian lurrazpiko aparkalekuaren proiektua egiteko dirua ere jarri dute, nahiz eta alkateak ez duen oso argi ikusten proiektu hau: "sekulako inbertsioa eskatzen du honek eta seguru nago herritarrek ez dutela autoa aparkatzeko ordainduko, eta noski, dohainik ezin da izan. Azterketa guztiek proiektu hau ez egiteko esaten dute, baina herritarrek hainbeste eskatzen dutenez, diru bat bideratu dugu proiektua martxan jartzeko". Udalaren zorrari dagokionez, ondorengoa esan digu alkateak: "Udala momentu honetan oso ondo dago, gure zorra 130 milioi pezetakoa da, eta hori oso gutxi da 16 milioi euroko aurrekontu batean. Aurrekontu honekin gure programa erraz beteko dugu".

## EUSKARA
427.618,12 euro




## GAZTEDIA
304.639,92 euro




## ONGIZATE SAILA

| | |
|---|---|
| Gizarte babesa | 44.000 |
| Gizarte ekintza | 1.212.355,12 |
| Zaharren biltokia | 50.500 |
| Enplegu promozioa | 11.079,74 |
| Kaleen garbiketa eta hondakinen gestioa | 1.250.078 |
| Hilerria | 33.700 |
| Kontsumitzaileen eskubideen babesa | 19.800 |
| Merkatua | 22.475 |
| **Guztira** | **2643.987,86 euro** |




## HIRIGINTZA

| | |
|---|---|
| Hirigintza | 3.953.219,20 |
| Bide publikoa | 2.202.461,81 |
| Nekazal garapena | 829.192 |
| **Guztira** | **6.984.873,01 euro** |




## HAZIENDA

| | |
|---|---|
| Zor publikoa | 496.543,78 |
| Gestio ekonomikoa | 517.978,77 |
| **Guztira** | **1.014.522,55 euro** |






## IÑIGO ARKAUZ
PPko zinegotzia

### «Inbertsioen atala handitu egin den arren, ez dago herrirako obra garrantzitsurik»

Aurtengoan PP alderdiak abstentzioaren alde egin du aurrekontuetan. Iñigo Arkauzek esan digunez, 2007ko aurrekontuak gauza onak eta txarrak ditu, eta horregatik ez omen dute kontrako botoa eman: "Batetik, asko gustatu zaigu Plaza Txikian lurrazpiko aparkalekua egiteko proiektuari eskaini zaion dirua. Oso garrantzitsua dela iruditu zaigu. Baita ere, aspalditik agindu zizkiguten lokalak emango dizkigute aurten alderdi politikoei, eta horrekin ere konforme gaude. Baina, aurrekontuetan badira pare bat gauza gustatu ez zaizkigunak: batetik, Udalbideri ematen zaion dirua. Gure ustez, diru hori herrian gastatu behar da eta ez eraikuntza nazionalean. Bestalde, inbertsioen atala aipatu behar dugu. Badakit aurten handitu egin dela inbertsiotarako diru kopurua, baina hala ere, ez dago herria hobetzeko obra handirik. Alde zaharra oinezkoentzako bilakatzeko lan handia egingo da, baina osterantzean, ez dago ezer azpimarratzekorik".



## JAVI AZNAL
Ezker Batuako zinegotzia

### «Lau emendakin eta mozioa aurkeztu nituen eta denari ezetz esan zioten»

Ezker Batuak aurkeztutako emendakin eta mozioa ez zirenez onartu, Javi Aznalek abstentzioa bozkatu zuen: "aurrekontuen 0,7a 3. munduko herrialdeetara bideratzeko eskatu nuen batetik. Bestalde, IMHko museoa eta Udalaren arteko lan-harreman bat proposatu nuen. Hirugarren emendakinean industriguneetarako sarrera-irteerak hobetzea eskatzen nuen, Ibaitartekoa batez ere, oinezkoentzako oso arriskutsua delako, eta azkena Elgoibarren dauden etxebizitza hutsei buruzkoa izan zen. Jaurlaritzako Bizi-Gune proiektuan parte hartzeko eskatu nion Udalari, etxebizitza huts horiek alokairuan jartzeko, baina alkateak esan zidanez, ikerketa hori egina dago eta Bizi-Gunetik esan dutenez, Elgoibarren ez omen dago horren beharrik". Mozio bat ere aurkeztu zuen, eta hau ere ez zuten onartu: "Aurrekontuak prestatzerakoan herritarren partaidetza kontuan hartzeko eskatu nuen, beraien eskaerak entzun eta diru bat horretara bideratzea. Udal honek ez ditu herritarrak kontuan hartzen".

Gero eta ekintza gutxiago antolatzen dira ihauterietan eta azken urteotan gaueko giroak behera egin du.

# Gustuko al duzu ihauterietan mozorrotzea?

**Mª ISABEL UNANUE**
Tabernaria
55 urte



"Nik bai. Koadrilan mozorrotzen gara astearte arratsaldean. Aurten ni ez naiz aterako, baina lagunak bai. Duela 10 urte inguru hasi ginen eta gustatzen zaigu."

**JOSE LEON**
Harrerako langilea
30 urte



"Ez gehiegi. Adinean gora joan ahala, jendea gutxiago mozorrotzen dela uste dut, guri hori gertatu zaigu behintzat. Umeak gehiago mozorrotzen dira."

**JERAY PEÑA**
Pintorea
22 urte



"Ez. Kalera ateratzen naiz parrandara, baina mozorrotu gabe. Umea nintzenean mozorrotzen nintzen, baina orain ez daukat horretarako denborarik."

**MERCEDES REY**
Etxekoandrea
37 urte



"Bai, mozorrotzen naiz eta umeekin ateratzen naiz kalera. Hala ere, jende asko ibiltzen da mozorrotu gabe eta zapatu gauean oso jende gutxi ateratzen dela diote."

# [ BAI ala EZ? ]

## Aldaketa klimatikoak kezkatzen al zaitu?

**BAI %92**

"Bai, eta asko, gainera. Hau ez da txorakeria. Munduak daukan arazorik larrienetakoa da. Gizakiak ekosistemari eragin dion kaltea nabarmena da eta ez dauka bueltarik."

**EZ %8**

"Ez. Uste dut gizarte hau gehiegi kezkatzen dela eta alarma gorria pizten dutela berehala. Ez da hainbesterako izango. Negu epela izan dugu, baina etorriko dira hotzak ere."

Datorren asterako... Etxe hutsengatik egunean 9 euro ordaintzea proposatu du Jaurlaritzak.

**Etxe hutsengatik zergak ordaintzea irtenbide ona al da?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

## [ PROTAGONISTA ]



### SergioAcevedo

Elgoibarren bizi den 34 urteko kolonbiar honen istorioa harrigarria da. Duela 9 hilabete leuzemia gaixotasuna zeukala esan zioten eta sendatzeko, bateragarria den hezur-muina behar du. Horregatik, amari probak egin zizkioten eta honen hezur-muinak ez zuela balio ikusita, bere aita biologikoarengana jo du. Jorge Oñate abeslari kolonbiarra da bere aita. Honek ez zekien 34 urteko seme bat zeukanik ere, eta sorpresaz hartu zuen Sergioren eskaria. Hala ere, badirudi bateragarritsaun proba egiteko prest dagoela. Hauxe da Sergioren itxaropen bakarra.

## [ NOTIZIA ]

# Plaza Txikiko lurra margotu dute eta OTA martxan jarriko da

Lurra asfaltatzeko lanak amaitu ostean, Plaza Txikiko aparkalekua margotu dute aste honetan. San Frantzisko iturri ingurunea margotzen dihardute egunotan, eta eguraldiak laguntzen badu behintzat, egun gutxitan bukatuko dutela jakinarazi digu udalatzain buruak. Bere asmoa, margoketa lanak lehen bailehen amaitzea da, eta aparkalekua prest egon bezain pronto jarriko da martxan doako OTA. Esan digunez, gehienez ordu eta erdiz utzi ahal izango da autoa ingurune honetan. Hala ere, alde zaharrean lan egiten dutenetzat, txartel bereziak egongo dira, aparkatzeko denbora luzatzeko. Eskaera guztiak udaletxeko idazkaritzan egin beharko dira eta ondo arrazoituta egon beharko dute. Bizilagunei, ordea, ez zaie txartelik emango.



**3 aparkaleku gehiago**

Plaza Txikiko alboetan bakarrik aparkatu daiteke orain. Hasiera batean auto gutxiago kabitzen dela dirudi, baina udaltzain buruak esan digunez, “3 auto gehiago kabitzen dira gutxienez, beraz, denok atera gara irabazten”.

## [ ZENBAKIA ] 200.000

Udalak 200.000 euro gastatuko ditu ditu Herri Eskolako patioa estaltzeko proiektuan. Aspalditik zeukaten eskari da hau. Udalak %45ean finantzatuko du proiektua eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jarriko du gainontzeko %55a.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Eguraldi zoroa izan dugu aste honetan. Hego haizearekin agurtu genuen joan zen astea, eta oraingoan denetarik izan dugu. Egun baten bero, hurrengoan hotz, euria bestean... baina protagonista nagusia haizea izan da azken egunotan eta horren adibide dugu aste honetako erretratua. Asteazken goizean zuhaitz bat bota zuen haizeak eliza atzeko bolatokian. Haize bolada gogorra izan genuen momentu horretan eta herritar ugari aterkia heldu ezinik ikusi genituen kalean. Dudarik gabe, negu arraroa daukagu aurten.

# Sigma auzoko sarrera-irteera hobetzeko obrak egitea onartu du Udalak



Azken udal plenoan 2007rako aurrekontuak onartu ziren, eta aho batez adostu zuten Sigma auzoaren egoera hobetzeko obrak egin behar zirela. Horretarako, Olasoate 2 eta Olasogain sektoreetako arau subsidiarioak aldatzea erabaki zuten. Honen helburu nagusia Sigma auzorako sarrera-irteera hobetzea izango da, izan ere, auzotik errepide nazionalera ateratzea oso arriskutsua da.

**Hilerri parean errotonda**

Sigma auzoa hobetzeko lanen barruan, hilerri parean errotonda bat egingo dute. Olaso eta Xixilion industriguneetarako sarrera erraztuko da alde batetik, eta bestalde, Sigma auzotik errepiderako irteera hobetuko da. Gaur egungo sarrera norabide bakarrekoa izango da obrak amaitzen direnean eta etxebizitzen atzeko aldetik egingo den bidea erabiliko da auzotik irtetzeko. Bide honek errotondara bertara emango du. Proiektuaren baitan, errotondatik beste bide bat egitea aurrikusten da Sigmako auzora sartu ahal izateko.

Obra hauek 2007an jarriko dira martxan, eta 2008. urtean zehar amaituko dira.

## Autoa konpartitzeko egitasmoa martxan da



"Autoan elkarrekin" zerbitzu berria jarri du martxan Debegesak, eta Elgoibarko Udalak egitasmo honekin bat egin du. Autoa beste pertsona batzuekin konpartitzea da helburu nagusia, eta bide batez, ibilgailu pribatuek sortzen duten kutsadura eta kontsumo energetikoa gutxitzea. Zerbitzu honen bitartez, interesaturik daudenek euren antzeko bidaia egiten duten pertsonak identifikatuko dituzte eta posta elektronikoaren bidez beraiekin harremanetan jarriko dira. Interesatuek www.debegesa.com webgunean aurkitu dezakete informazio gehiago.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Txankakuaren zozketa

Txankakua Merkatari Elkarteak asteazkenean egin zuen gabonetako zozketaren sari banaketa. Guztira 1.800 euro banatu ditu erosketa txeketan.



### Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko bi erosketa-txeke banatu dituzte Merkatu Plazako dendariek. Pilar (Lerun Txiki) eta Tere Abad izan dira irabazleak. Saria Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.



### Bai ala Ez lehiaketa

Hilabete honetan Iker Tapia izan da BARRENeko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Zumaiako Zelai Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkutioa irabazi du. Zorionak!



*Jose Manuel Muñoz 53 urteko mendaroarrak, 25 urteren ondoren, Mendaroko Txirrindulari Taldeko presidente kargua utzi du eta honen lekua, Ander Zulaika gazteak hartu du. Hori dela eta, oraingo honetan, Jose Manuel Muñoz eta Ander Zulaika izan ditugu solaskide.*

# JOSE MANUEL MUÑOZ

## MENDAROKO TXIRRINDULARI TALDEKO PRESIDENTE OHIA



## «Txirrindularitza lasterketak antolatzeko nahiak bultzaturik sortu genuen elkartea»

• **Nola sortu zen Mendaroko Txirrindulari Elkartea?**
Inguruko herrietan bezalaxe, Mendaron ere, txirrindularitza lasterketak antolatzeko nahiak bultzaturik, txirrindulari zaleok, elkartea sortu genuen eta neu izendatu ninduten presidente.

• **Zeintzuk izan dira zure eginkizunak?**
Funtzio errealei begira, presidente karguaz gain, idazkari eta diruzain lanak ere burutu ditut. Hasiera batean, Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioarekin batera, lasterketak antolatzen hasi ginen. Geroago, jubenilen mailako probak antolatzeari ekin genion. Mendaroko Udalari aurkeztu genion proposamena zera izan zen: Mendaroko txirrindularitza lasterketa, uztailean antolatzea, hau da, Santa Ana jaien egitarauan baitan; horrela, lasterketa subentzionatu ahal izateko. Proposamen hau onartua izan zen eta aurreratzean lasterketa herrikoia antolatzen jarraitu zen.

• **Santa Ana jaietako txirrindulari lasterketaz gain, bestelako probarik antolatu al duzue?**
Bai. Iaz, jubenil mailako Euskadiko txirrindulari txapelketa antolatu genuen. Gainerakoan, bizikletan ibiltzea gustuko dugunok elkartu eta irteerak egin izan ohi ditugu igandero. Are gehiago, orain testigua hartu duen gazte taldearen helburuetako bat ere, horixe litzateke, ohitura honekin jarraitzea. Horren erakusgarri, pasa den igandean bertan, 15 bat zikloturista atera ginen.

• **Momentu berezirik gogoan?**
Iaz jubenil mailako Euskadiko Txirrindulari Txapelketa antolatu genuenekoa. Ilusio handia jarri genuen kirol ekimen honetan, baina, apur bat zapuztua geratu zen egun hura, gorabehera bat tarteko. Gipuzkoako Txirrindulari Federazioarekin aldez aurretik hitz egin nuen eta beraiek, lasterketako irabazlearentzat garaikurra, mailota eta txapela ekarriko zutela adostu genuen. Horrela, nik, bigarren eta hirugarren geratzen zirenentzako garaikurrak eskuratu nituen eta lore sortak. Gure ezusterako, ordea, lasterketa egunean, Gipuzkoako Federazioko kide batek irabazlearentzako mailota baino ez zuen ekarri. Ondorioz, ez geneukan garaikurrik, ezta txapelik ere, garaileari emateko. Hori ikusita, neu kide naizeneko Aizpe soziedadean dauzkagun trofeo handietako bat hartu nuen eta huraxe eman genion irabazleari, aldez aurretik gertatu zitzaigunaren berri emanez. Lazkaoko mutil batek irabazi zuen lasterketa eta ni arduratu nintzen, ondorengo egunetan, Gipuzkoako federazioarekin harremanetan jarri eta trofeoa eta txapela egiteko eskatu nien. Azkene-

an, lasterketako irabazleari etxera bidali zitzaizkion garaikurra eta txapela.

• **Zenbat mendaroar aritu dira Mendaroko txirrindulari proban?**

Urtetik urtera, Mendaroko 14 bat txirrindulari ibili dira herriko lasterketan parte hartzen. Horietako bat, Ander Zulaika da, orain presidente kargua hartu duena. Ander, lehenago, jubenil eta kadete mailan ibilitako txirrindularia da. Momentu hauetan, afizioantu mailan, bi txirrindulari daude Mendaron: Beñat Urain eta Jon Lazkano. Profesional mailan, berriz, Iñigo Lazkano. Aste honetan, Mallorcako itzulian parte hartu duen Orbea taldeko txirrindularia. Gaur egun, profesional mailan dauden beste txirrindulari batzuk ere jardun izan dira Mendaroko lasterketan; esaterako, Unai eta Aitor Osa.

• **Nola ikusten duzu egungo txirrindularitzaren egoera?**

Mendaron momentu hauetan, jubenil mailan eta hemendik behera ez dago txirrindularirik, ezta Mutrikuko eskolan ere. Espero dugu, aurrerantzean, gazteak anima daitezen kirol hau praktikatzera. Txirrindularitzarako zaletasuna indartzeko, beharrezkoa da, txirrindulariak lasai eta seguru ibiltzea ahalbidetuko dien espazio egokiak ezartzea. Irtenbide bat, hainbat herritan dagoeneko jarri nahian dabiltzan bidegorriak izan litezke.

• **Zergatik utzi duzu presidente kargua?**

Urte asko daramatzat eta bestelako gauzak ere egin nahi ditut. Honen harira, esan beharra dago, presidente lanak denbora dexente kentzen duela: bilerak direla, lasterketa aurreko prestaketa lanak... nahiz eta momentu oro, jende askoren laguntza eduki dudan. Baina, batik bat, bi arrazoik gidatu naute kargua uztera: egun Mendaron ez dago jubenilen mailan eta ezta, hemendik behera ere, txirrindulari bakarra ere. Orain arte egon direnak, afizionatu mailara igaro dira. Beste alde batetik, bere garaian planteatu nituen helburuak bete dira: jubenil mailako Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketak Mendaron jokatzea, hain zuzen ere. Laburbilduz, balorazio ona egiten dut; merezi izan du gisa honetako elkarte bat sortzea, azken batean, Mendaron bere garaian zegoen txirrindularitza zaletasunari eustea eta indartzea lortu delako. Oso urte onak eta politak izan dira. Gainera, zuziak pizturik jarraitzen du eta hori eskertzekoa da.

**[ «Presidente karguak denbora dexente kentzen du» ]**



## ANDER ZULAIKA

### Mendaroko Txirrindulari Elkarteko presidentea



Mendaroko txirrindularitza elkarteko zuzendaritzakoak. Ez zuten, beraz, birritan pentsatu Muñozek elkartea utzi behar zuela jakin zutenean. Ez zeuden herrian urtero antolatu ohi den lasterketa bertan behera lagatzeko prest. Hala, talde bat elkartu eta erreleboa prestatzen hasi ziren, bereziki, Mendaroko jai-egitarauaren baitako jubenilen lasterketa antolatzeko asmoz. Gipuzkoa mailako proba da hori, eta ekitaldi berezia herrian, Ander Zulaika txirrindularitza elkarteko presidentearen esanetan. Izan ere, bizikletarako afizio handia dago Mendaron. Astebururo, esaterako, hogei bat lagun ateratzen dira errepidera, eta horietako batzuk elkartera batuta, aurrera egiteko bidea ikusi zuten egungo zuzendaritzakoek. Elkartea eratua zegoen, eta enpresa sortzea zen hurrengo pausoa; ezinbesteko urratsa, gauzak legez egiteko. Paper kontutan ari dira orain. Behin ardura hartuta, elkartea bera biziberritzea jarri dute orain helburu. Uztaileko lasterketaz gain, zikloturisten igandetako irteerak ere antolatu nahi dituzte, eta baita, nola ez, denboraldi amaierarako irteeraren bat.

elkarrizketa...

# Uxue Alberdi

# "Ilusio bat bete dut, baina nire ametsa idazten jarraitzea da"

IGARTZA SARIA IRABAZI ZUEN IAZ UXUE ALBERDIK ETA HORRI ESKER, BERE LEHENENGO LIBURUA ARGITARATU BERRI DU. "AULKI BAT ELURRETAN" IZENA JARRI DIO BERE ESTREINAKO LANARI. SUEDIAKO KARLSTAD HERRIALDEAN GIROTUTAKO IPUN LABURREK OSATZEN DUTE LIBURUA. GAURKOAN IDAZLE GAZTE HONEKIN EGON GARA, ETA LITERATURAZ APARTE, BERTSOLARITZAZ ETA BESTE HAINBAT GAUZATAZ HITZ EGIN DUGU.

**Igartza Sariak eman dizu zure 1. liburua kaleratzeko aukera. Zure ametsa egi bilakatu dela esan al daiteke?**

Ilusio bat bete da, bai, baina nire ametsa idazten jarraitzea da, bete egiten nau. Horretarako denbora behar da, ordea. Itzultzaile lanetan ari naiz, eta hortik ateratzen dudan dirua denbora erosteko erabili nahi dut. Asko gustatuko litzaidake urtebetetxo bat idazteko hartzea.

**Gustura gelditu al zara emaitzarekin?**

Bai, banuen gogoa liburua ikusteko. 20 urterekin hasi nintzen ipuin horiek idazten, eta laster 23 urte beteko ditut. Arraroa da nire inguruan bueltaka ibili diren paperak, zirriborroak eta ideiak liburu bihurtuta ikustea.

**Zergatik ipuin laburren bilduma bat?**

Betidanik gustatu izan zaizkit ipuinak, bai irakurtzeko eta baita idazteko ere. Genero intentsoa da, ikaragarri polita. Gainera, kontatu nahi nuenak formato hori eskatzen zidan.

**Suediako Karsltad herriko ipuinak dira. Zure egonaldia kontatzen al duzu?**

